BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1282

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 27koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. Honen bidez, aldatu egiten da Nets Programaren 2013ko laguntzetarako deialdia aditzera ematen duen 2012ko urriaren 31ko Ebazpena. Deialdi hori Nets Programa arautzen duen Aginduak ezarritakoaren esparruan egin zen (Nets Programa, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak abiarazteko proiektuak egiteko laguntza-programa).

2012ko abenduaren 28ko EHAAn (251. zk.), Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2012ko urriaren 31ko Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, aditzera eman zen Nets Programaren 2013ko laguntzetarako deialdia, eta, han, eskabideak aurkezteko epea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzea beharrezko ikusten denez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2012ko urriaren 31ko Ebazpenaren 3. artikuluko 2. paragrafoa aldatzea. Ebazpen horren bitartez, aditzera ematen da Nets Programaren 2013ko laguntzetarako deialdia (Nets Programa, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak abiarazteko proiektuak egiteko laguntza-programa). Aldaketa horren ondorioz, honela idatzita geratzen da paragrafo hori:

«2.– Eskabideak aurkezteko epea deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2013ko apirilaren 12an bukatuko da».

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 27a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
ESTIBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.